

Gazteen Euskal Behatokiak Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emigrazioa aztertu du


Gazteen Euskal Behatokiak bere azken ikerketa aurkezten du: "Euskadin jaiotako gazteen migrazio-mugimenduen azterketa".

Euskaditik atzerrira doazen gazte gehienak atzerrian jaiotako dira eta beren jatorrizko herrialdeetara itzultzen dira. [2013an aztertu genuen](#) errealitate hori abiapuntutzat hartuta, txosten honen aztergaia Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emigrazioa da eta bere helburua diagnosian oinarritutako itzultzeko neurriak diseinatzen laguntzea. Helburua hori bada ere, ez diogu garrantzia kentzen Euskadin gazte atzerritarrek izateari eta erakartzeari, beharrezkoak baitira gure biztanleriaren zahartzea arintzeko.

EUSKADIN JAIOTAKO GAZTEEN MIGRAZIO- MUGIMENDUEN AZTERKETA

Ekaina

2016



Gazteen Euskal Behatokia

Administrazio-erregistroek informazio garrantzitsua ematen digute emigrazioaren bilakaera aztertzeko. Txosten honetan Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) PERE delakoaren datuak (atzerrian bizi diren espainiarren erroldakoak) eta Eustaten migrazio-mugimenduen estatistikarenak aztertu ditugu. Gainera, atzerrian dauden gazteen egoerara hurbildu gara, modu xume eta mugatuan, Gazteen Euskal Behatokiak azken aldian eginiko bi ikerketen bidez.

PEREko estatistikaren arabera, 2016an Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko 3938 gaztek ohiko bizilekua atzerrian dute. 2009tik hona (2009an hasi zen PEREko estatistika) % 7,7ko jaitsiera izan da errolda horretan erregistratutako gazteak kontuan hartuta. Horietako gazte gehienak Europan bizi dira, eta Alemanian dauden gazteak gehitzen diren arren, Frantzia eta Erresuma Batua dira Euskadin jaiotako gazte gehien biltzen dituzten herrialdeak. Frantzia alboan dutela eta, Gipuzkoako gazteak dira atzerrira bizitzera gehien joaten direnak.

Eustaten migrazio-mugimenduen estatistikak 2014an atzerrira irten ziren Euskadin jaiotako 705 gazte zenbatzen ditu. Datu hori 2004tik jasotako altuena da. Bestalde, 2014an itzuli diren gazteak gehitu dira eta 2006an, hau da, krisiaren aurretik, itzuli zirenen zifra errepikatu da. Itzulera-tasa % 43koa izan da 2014an eta 2011-2013 urtetakoa baino altuagoa izan da.

Gazteen Euskal Behatokiak 2015ean egindako inkesta baten arabera, Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik batek lan esperientzia izan du atzerrian eta itzuli da. Atzerrian lanean izandako batez besteko denbora zortzi hilabetekoa izan da, baina gehienek lau hilabete baino gutxiago eman dituzte han. Batez ere praktikak egitera joan ziren, ikerketarako bekadunak ziren edo esperientzia berriak bizi izatera edo hizkuntzak ikastera joan ziren. Itzuli direnen % 7,9k bakarrik diote lan eza dela eta emigratu zutela.

Gazteen Euskal Behatokiak 2016an burututako azken inkestak ondorioztatzen du Euskadin jaiotako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2,6k 35 urtez azpiko neba-arrebaren bat atzerrian lan egiten dutela. Hemengo neba-arrebek esan digute atzerrian lanean dabiltzan hamar gaztetik lau hara joan direla hemen ez zutelako lan aukerarik; horiek Euskadin jaiotako gazte guztien % 1 direla jo dezakegu.